



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Ostirala
2008-01-04**

VIURTEA 1.327.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Meltxor, Gaspar eta Baltasar Errege Magoei ongietorria emateko prest

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA Gaur, bihar eta etzi ekitaldi ugari antolatu dituzte etorrera ospatzeko

ILUSIOA Etxeko txikienek bereziki gogotsu itxaron dute hiru Erregeen etorrera, hauek ekarritako opariengatik 4



N. GARZIA

MAYRA CALAPI EKUADORTARRA

«Ekuatoriar Festarekin pozik geratu ginen, eguraldi txarra egin zuen arren»

GIZARTEA Pasa den larunbatean Leitzañ bizi diren ekuadortarrek festa egin zuten haien kultura ezagutarazteko; Calapi bertan izan zen 3

Javier Garayalde Jazz Boskotearen kontzertua, Gurea aretoan, gaur

VILLABONA 22:30ean hasiko da emanaldia, eta doan izango da; «entzugarria den jazz musika egiten dugu», azaldu du Javier Garayalde 2

**EAE-ANVren
aldarriaren
aldeko
atxikimendu
bilketa Anoetan**

POLITIKA 50 lagunetik gora egin dute bat; Espainiako Hauteskundeetan parte hartuko duela dio aldarriak 2

**Oria
Merkatarien
elkarteak banatu
ditu Gabonetako
sariak**

VILLABONA Saskia, landaetxean asteburua eta afari bat jaso dute sari bezala irabazleek 2

Kimetz

Mutil arropa
Kale Nagusia 13
943 24 94 96

Neska arropa
Kale Nagusia 21
943 67 38 62

www.kimetz.eu

Javier Garayalde Jazz Boskotearen kontzertua, gaur Gurea aretoan

Villabona » Emanaldia doan izango da; «entzugarria den jazz musika egiten dugu», azaldu du Garayalde

IMANOL GARCIA

Javier Garayalde Jazz Boskoteak kontzertua emango du gaur, 22:30ean, Gurea aretoan. Emanaldia doan izango da. Garayalde berak azaltzen duenez, «entzugarri den jazz musika egiten dugu, estilo askotakoa». Dixland, swing, bossa nova, funky, baladaren bat edo beste jotzen dute. «Gure helburua publiko zabalarengana heltzea da», dio Garayalde.

Ez zaie gustatzen egitarau finko bat eramatea. «Guri gustatzen zaigu ikusten dugun publikoaren arabera egitaraua moldatzea». Ez dakite zer motatako entzulegoatopatu duten Villabonan. «Horre-

lakoetan gazte zein helduak etor daitezke. Ematen dugun egitarauarekin asmatu ohi dugu eta asmo hori dugu emanaldi honekin ere».

Musikari esperientziaduna

Garayalderek saxoa eta klarinetara jotzen du eta berarekin batera ariko dira Jesus Trincado tronboian, Marcelo Escrich kontrabaxuan, Mauro Urriza pianoan eta Aurelio Zabalegi baterian. Guztiak dira esperientziadun musikariak eta gehienez Iruñeko goi eta erdi mailako kontserbatorio irakasleak dira.

Garayalde azaltzen duenez, «ahal dugun kalitate eta maitasun handienarekin jotzen saiatzen gara kontzertuetan». Emanaldiak jazz entzuten hasiberriak diren zatitza zein musika mota hori entzun ez dutenentzat da. «Entzulegoa jazz entzuteko gogoarekin ateratzea da gustatzen zaidana».

EAEren aldarriarekin bat egiteko deia Anoetan

ERREDAKZIOA

EAE-ANVk atera duen aldarriaren aldeko atxikimendu bilketa egin berri dute Anoetan eta 50 lagunetik gora eman zuten atxikimendua. Aldarrian esaten denez, EAE-ANVk Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan parte hartuko du.

«Independentziaren aldeko mezua Espainiara eramateko konpromisoa hartu dugu, Euskal Herri nazioa dela adierazi eta Euskal Estatu sortzeko bidean bat egiten dugun guztion ahotsa entzunarazteko», adierazten da bertan. «Gaur aurkezten dugun manifestuaren

bitartez, Euskal Herriaren eskubideen alde arlo ezberdinetan lanean ari diren guztiei dei egiten diegu gurekin bat egiteko, eta independentziari bai esateko. Indarrak biltzeko garaia delako, Euskal Herriaren etorkizuna euskal herritarren esku egon arte».

Bihar ere atxikimendua emateko aukera izango da berriro, 11:00etatik 13:00etara, plazan.

Bestalde, Anoetako EAE-ANVk gogorarazten du bihar, Anoetako belodromoan, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak ekitaldia antolatuko duela. Bertara joan nahi duenak 15:54ean izango du tren.

Soka motzean

«200 lagun inguru etorri beharko lirerateke zinemara»

JOXI ALONSO

Gurea aretoko arduraduna

I. GARCIA

Langile moduan 9 urte aritu zen Joxi Alonso (Villabona, 1968) Gurea aretoan. Azken lau urteetan arduraduna da.

Zinemara etortzen da jendea?

Haurren aldetik ondo. Helduen kasuan, jende gutxi. 200 inguru etorri beharko lirerateke, baina ehun inguru etortzen dira.

Eta hori zergatik?

Lau urte pasa dira Gurean helduentzako zinema eman gabe eta jendeak beste ohitura batzuk hartu ditu.

Eta antzerkira etortzen da jendea?

Orokorrean gutxi. Aktoreak ETBn ateratzen badira gehiago.

Eta kontzertuetara?

Gero eta gutxiago.

Jarri duzun filmarik gustukoena?

La Misión.

Antzeziana?

Illana taldeak egindakoa, baina izenburua ez dut gogoratzen.

Kontzertua?

Mikel Urdangarinena.

Aktore bat?

Clint Eastwood.

Aktorea bat?

Demi Moore, Madeleine Stowe eta Jodie Foster.

Gabonetako filma?

La brujula dorada.



I. GARCIA



Oria elkarteak banatu ditu sariak

VILLABONA » Oria Merkatarien Elkarteak banatu ditu bere bezeroen artean Eguberrietako sariak. Lurdes Maya tolosarrak (argazkian laugarrena ezkerretik) lehenengo saria jaso du eta beraz saskia eramango du etxera. Miren Ayerdi billabonatarak (bigarrena ezke-

rretik) Txopobenta landaetxe bizkaitarrean asteburua jaso du saritzat. Azkenik, Maite Jimenez billabonatarak (lehenengo ezkerretik) Asteasuko Olarreaga Goiko jatetxean bi lagunentzako afaria jaso du saritzat. I. GARCIA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

E Elkarrizketa

MAYRA CALAPI ▶ Ekuadortarra

Gizartea ▶ Joan den larunbatean Leitzan bizi diren ekuadortarrek festa bat egin zuten haien kultura ezagutarazteko eta Mayra Calapik ere bertan parte hartu zuen

NAIARA GARZIA

Mayra Calapik (Ekuador, 1985) 8 urte daramatza Nafarroan, haue-
tatik 5 Leitzan, eta joan den larun-
batean Leitzan ospatutako Eku-
adortar Festan parte hartu zuen.

Zer moduzkoa izan zen festa?

Festarekin pozik gelditu ginen eguraldi txarra egin zuen arren. Jendea hurbildu egin zen, baina eguraldi hobea egin izan balu, gehiago hurbildu izanen litzateke.

Dantza egiteaz gain janaria eta edaria ere eskaini zenituzten.

Bai, eta jendeak gustura hartu zi-
tuen. Zenbaitek behin baino gehia-
gotan jan zuten eta hori ikusteak
guri poza eman zigun.

Idea Gizarte Zerbitzuarena izan zen. Zer iruditu zitzaizuen festa egiteko proposamena?

Oso ona, horrela hemengo jende-
ak gure kultura ezagutu dezake,
nola bizi garen...

Leitzan gustura bizi al zara?

Bai.

Herrian zaudeten ekuadortar guztiak kitxuak zarete?

Bai, arraza indigena bat da, Eku-
adoren dauden arraza indigeneta-
ko bat, asko baitaude.

Eta zuen hizkuntza al daukazu?

Bai, baina ez dugu denek hitz egi-
ten. Nik, esaterako, ez dakit, ulertu
ulertzen dut, baina gutxi.

Zure gurasoek hitz egiten al dute?

Bai, nire gurasoek bai, eta nire osa-
ba-izebek... denek hitz egiten dute.

**Zuek Ekuadoren zuen hizkuntza normaltasunez hitz egin dezake-
zue?**

Bai, hemen euskararekin gerta-
zen den bezala.

**Indigenen barruan denek erlijio
bera al duzue?**

Ez, ez gara denak katolikoak, edo
Jehovaren testiguak, edo dena
dela... Denetatik dago indigenen
barruan. Mestizajea bezala da, in-
digenen barruan bakoitzak bere
erlijioa dauka.

**Zuen herrialdean urtean zehar ze
festa ospatzen dituzue?**

Han normalean festa guztiak esana-
hi bat dute, inauteriek, Aste San-
tuek, *Intiraimi* izenekoak (San
Juan festa)... irailen Joraren festa
egiten dugu, azaroan Santuen
Eguna eta gero Gabonak eta Urte
Zaharra ospatzen ditugu. Guzti-
etatik *Intiraimia* eta inauteriak dira
garrantzitsuenak. *Intiraimian* ar-
toaren eta eguzkiaren festa ospa-
tzen dugu. Artoaz eginiko edari bat
egiten dugu, eta 15 egun dantza-
tzen pasatzen ditugu.



N. GARZIA

«Festarekin pozik gelditu ginen, eguraldi txarra egin zuen arren»

**Gabonak han nola ospatzen ditu-
zue?**

Bakoitzak bere etxean afaltzen du
eta gero *La pasada del niño* izene-
koa egiten dugu. Jesus umea herri-
tik barrena eramaten dugu eta jen-
dea mozarrotu egiten da aingeruz,
artzaiez...

**Indigenak zaretenen artean eta
ez direnen artean ez dago arazo-
rik edo arrazakeriarik?**

Ez, baina leku guztietan gertatzen
den bezala, diruak agintzen du eta
aberatsak aberatsekin elkartzen
dira, eta behartsuak behartsuekin.
**Eta indigena aberatsak ere ba al
daude edo denak txiroak dira?**

Denetatik dago, batzuk aberatsak
dira, bidaiatu egiten dute...

Nolakoa da zuen jantzia?

Alkandora bat daukagu, gero *fa-
chalina* izeneko beste jantzi bat, eta
anaco edo gona zuri eta beltza. Beti
biak jantzi beharra dauzkagu, bes-
tela hankak ikusten baitira. Lepo-
an *gualca* izeneko bitxi batzuk
janetzen ditugu, eta gerrialdean bi
faza erabiltzen ditugu: *mama-
chumba* eta beste bat. Gero esku-
muturrean *manillas* izeneko bi-
txiak eramaten ditugu. Normale-
an espartinak eramaten ditugu, eta
ilean ere zinta jartzen dugu.

**Zer egunetan janitzen duzue jant-
tzi hau?**

Norberak nahi duen egunetan.
Nik festa egiten dugun egunetan
jansten dut, hau da, norbaiten ur-
tebetetzea denean, bataiaren bat
dugunean, afariren bat...

Zergatik etorri zinen hona?

Nire kasuan nire ama hemen zego-
elako. Bakarrrik zegoen eta lagun-
du egin beharra nion. Ni han nire
amonarekin nengoan, baina oso
zaharra zegoen, eta ni jada *señorita*
bat egiten ari nintzen, eta *señorita*
batek han arriskua du... Guk han
ohitura txar bat daukagu, oso goiz
ezkontzen gara, eta nire amak bel-
dur hori zuen.

**Hona etorri eta hemen ezkondu
zinen?**

Ez, bikotea daukat, baina ez nago
ezkondua.

**Gurera ohitzea asko kostatu al zi-
taizun?**

Bai, 6 hilabete inguru, baina orain
den ez. Lehenengo 6 hilabeteetan
erabatean Ekuadorrera itzuli nahi

nuen. Urte hauetan ez naiz joan eta
aurten lehenengoz itzuli egingen
naiz.

Zure herria ikusteko gogoia duzu?

Bai, gogoia badaukat, baina beldu-
rra ere badut, urte asko dira ez nai-
zela joan eta ez dakit zer topatuko
dudan.

**Zuk Ekuador kanpotik nola ikus-
ten duzu, behartsua da?**

Ekuador diru aldetik behartsua da,
baina janarian eta lurreean oso abe-
ratsa da. Ikaragarri polita da.

**Zuk zure etorkizuna non ikusten
duzu, edo ikusi nahi duzu? Horren
inguruan pentsatzen al duzu?**

Batzuetan bai. Gauza askorengatik
itzuliko nintzateke hara, baina nire

**Asteburuetan saltzaile
ibiltariak izatea
daukagun ohitura bat da,
familiarik datorriguna**

**Ekuador diru aldetik
behartsua da, baina
janarian eta lurreean oso
aberatsa da**

alabarengan pentsatzen dudane-
an hemen gelditu beharra dudala
pentsatzen dut. Beste batzuetan,
aldiz, gauzak hobetuko balira de-
nak joango ginatkeela pentsatzen
dut.

**Eta zure alaba herrian nola ikus-
ten duzu?**

Ongi, ederki moldatzen da.

**Hizkuntzarekin nola moldatzen
zarete?**

Nik kitxua hitz egiten ez dudanez,
erdaraz hitz egiten diot, eta bere ai-
tak ere ez dio kitxuan hitz egiten.
Gero haurtzaindegian euskaraz
egiten du.

**Ez dizu penarik ematen zure ala-
bak kitxuen hizkuntza ez ikastea?**

Tarteka bai, arrazoi horrexegatik
ere nik ez bainuen ikasi, niri ez zi-
datelako hitz egin. Ni ere nahaske-
ta bat naiz, nire ama indigena da,
eta aita, mestizoa.

Zer bizimodu daramazu hemen?

Lana egiten dut eta etxeokandrea
naiz, bi gauzak egiten ditut. Nire
bikoteak ere lan egiten du. Gero,
asteburuetan saltzera joaten gara.

Eta ez zarete nekatzen?

Batzuetan bai, baina asteburuetan
saltzaile ibiltariak izatea daukagun
ohitura bat da, familiarik datorri-
gun gauza bat. Gure aitona-amo-
nek... denek egin dute hori. Eta gai-
nera ez zara etxean gelditzen. Sal-
tzera ateratzen bagara norbaitekin
topo egingen dut, norbaitekin hitz
egiten dut, zerbait salduko dudan
edo ez ikusiko dut... Ekuadoren
ere jende askok hau egiten du, as-
teburuetan etxeak hustu egiten
dira. Gutxi saldu arren, asteburue-
tan gustura ateratzen naiz saltzera.

Nahiago dut mila aldiz lana egin
baino, askatasun gehiago daukazu,
ez diozu inori azalpenik eman be-
har. Lanean, aldiz, ilabeteren kan-
titate zehatz bat izaten duzu, eta
salmentan hori ez da finkoa.



Meltxor, Gaspar eta Baltasar bihar helduko dira Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietara. Hainbat herritan ongietorria egingo diote, musika, kantu eta dantzez lagundurik. HITZA

Errege Magoak bihar helduko dira

Errege Magoak » Gaur, bihar eta etzi Errege Magoen etorrera ospatuko dute bi eskualdeetako hamaika herritan.

ASIER IMAZ

Bihar leintzean helduko dira Tolosaldeko eta Leitzaldeko herrietara Errege Magoak, hau da, Meltxor, Gaspar eta Baltasar. Ongi etorria egiteko bi eskualdeko herrietan ekitaldi ugari antolatu dituzte.

Gaur, bihar eta etzi

Ekitaldiak gaurtik hasiko dira hainbat herritan. Leiza izango da herri horietako bat, izan ere, gaur 18:30ean Errege Magoen pajeak plazara hurbilduko dira, haurren eskutitzak jasotzeko asmoz. Ondoren, hiru Erregeei igorriko dizkiete gutunak, hauek umeen eta ez hain umeen desioak jakiteko. Gauerdi berriz, Zintzarri jotzea egingo da kaleetan barrena eta

jaiarekin amaitzeko luntxa ospatuko da Aurreran.

Herri gehienetan ordea, bihar burutuko dira ekitaldi nagusiak. Tolosan, 300 haurrek parte hartuko dute Erregeen Kabalgatan adibidez. Izaskundik jaitzi eta Tolosako kaleetan barrena ibiliko dira Errege Magoak, erraldoi, txistulari, dantzari eta abarrek lagundurik. Orea eta Areson etxez etxe ibiliko dira Gaspar eta bere kideak.

Zizurkil berriz etzi agertuko dira meza nagusian. Ondoren, opariak banatuko dituzte haurren artean.

Abere eta traktore

Hurrutetik datozten Errege Magoak gure kaleetan modu ezberdinetan ikusiko ditugu. Anoetara adibidez traktore gainean iritsiko dira bihar, herriko txistulariek lagundurik. Plazan leku gehienetan bezala goxoki eta opariak banatuko dituzte.

Lizartzan, berriz, abereen gainean egingo dute herritik frontoirako bidea. Hemen herriko dantzariak ongietorria egingo diote opariak banatzen hasi aurretik.

Berastegin, berriz, txokolatea eta bizkotxoak banatuko dituzte besteak beste, herritarrek egingo dute hau, baina bidaia luzea egin duten Errege Magoek gustora berotuko dute gorputza, itzulerako bidea geratzen baitzaie oraindik.

» ERREGE MAGOEN DESFILEAK (BIHAR)

Alegia

■ **11:00etan.** Ume jolasak egingo dituzte plazan. Ondoren, Dantzari Txiki taldearen emanaldia egingo da, Txokolatadarekin amaitzeko goiza.

■ **19:00etan.** Hiru Errege Magoen Kabalgata.

Amezketak

■ **17:30etan.** Zazpi Itturitik Erregeak herrira jaisten hasiko dira. Bideak abestiak kantatuko dituzte ingurukoek eta herriko taberna guztietatik igaro ondoren, Amezketako frontoira zuzenduko dira. Bertan, opariak banatuko dituzte. Jaiarekin amaitzeko txokolate eta bizkotxoak banatuko dituzte.

Anoeta

■ **11:00etatik 13:00etara.** Zirko Eskola egingo da plazan. Bertan malabareak, akrobazia, oreka jokuak etab. egingo dira.

■ **19:00etan.** Basagain menditik Erregeen Kabalgata irtengo da. Erregeak traktorean iritsiko dira herriko plazara, Anoetako txistulariek alaiturik. Bertan goxokiak banatuko dituzte.

Areso

■ **18:00etan.** Errege Magoak etxez etxe ibiliko dira eta opariak banatuko dituzte.

Asteasu

■ **20:00etan.** Elizmenditik Erregeak herrira jaisten hasiko dira. Udalteixe azpiko arkupeetan aurrez gutuna jasotako haurrei opariak ba-

natuko dizkie. Kabalgata dantzari, trikitalari eta abarrek alaituko dute.

Berastegi

■ **19:00etan.** Errege Magoak herriko plazara iritsiko dira. Bertan Jaiotza Biziduna egingo da eta hiru erregeek eskaintza egingo dute bertan. Berastegiko haurrek ere berdin egingo dute; talo, gaztain, barazki eta abarrekin. Ondoren Baltasar, Meltxor eta Gasparrek opariak emango dizkie umeei eta azkenik udaletxeko balkoitik goxokiak botako dituzte.

Berrobi

■ **19:00etan.** Erregeak herriko plazara jeitsiko dira eta bertan opariak banatuko dituzte.

Bidegoian

■ **19:00etan.** Errege Magoak Goiatz aldetik Bidegoianeko frontoira iritsiko dira.

Irura

■ **18:00etan.** San Migel Plazan txokolate beroa banatuko dute bizkotxoekin.
■ **18:30etan.** Kalez kale, Errege Magoen etorrera ospatuko da, ondoren herriko plazan hauek opari banaketa egingo dute.

Leiza (Gaur eta bihar)

■ **Gaur, 18:30etan.** Pajeak plazan eskutitzak jasoko dituzte.
■ **00:00etan.** Zintzarri jotzea eta ondoren luntxa Aurreran.
■ **Bihar, 18:30etan.** Hiru Errege Magoen etorrera.

Lizartza

■ **19:45ean.** Zelaitik Hiru Erregeak eta pajeak herrira jeisten hasiko dira. Abereen gainean jarririk, herrira zeharkatu eta frontoira helduko dira. Bertan dantzariak ongi etorria egin ondoren opariak banatuko dituzte.

Orea

■ **17:00etan.** Erregeen irteera eta herriko etxe guztietatik igaroko dira ondoren.

Tolosa

■ **19:00etan.** Errege Magoak Izaskundik behera jeisten hasiko dira. Tolosako kaleetan barrena ibili ondoren, Triangulo plazan atsedernaldia hartuko dute. Oholtza gainean Jose eta Maria egingo dira eta Udaberriko dantzariak dantza egingo diote. Ondoren Erregeek eskaintza egingo dute eta bitartean Bandak pieza bat joko du. Txistulariak erraldoiekin batera aurrera jarraituko dute.

Villabona

■ **19:00etan.** Amasatik behera Errege Magoen Kabalgata jeitsiko da.

Zizurkil (Etzi)

■ **11:00etan.** Zizurkil Goiko San Milan elizan emango duten meza joango dira Errege Magoak.
■ **Ondoren.** Zimiteiuan, Erregeek opariak banatuko dituzte haurren artean.
■ **Ondoren.** Errege Magoak Fraisorora bisita egitera joango dira.

NEREX
Lentzeria

Bodiak
Pijamak
Kamisoiak
Kamisetak
Botoiak
Pikardiak
Tangak

Errementari Kolea, z/g • TOLOSA
Tel.: 943 67 16 30

Pasa den urteko azaroan Ibarako kristau elkartetik Emeterio Sorazu erretorea omendu zuten, «Ibarran 12 urte hauetan Emeterio Sorazuk egin duen lana eskertzeko asmoz».

Aldarea herrira zabalduz

ASIER IMAZ

Er da erraza apaiz batekin hitz egitea, bere hitzek ez baitute telebistako hitzen esan nahi bera; bi aldiz pentsatu beharra dago apaiza maitasunaz edo maiteminaz hitz egiten hasten denean, zertaz hitz egiten ari den jakiteko.

Apaiz etxean aurkitu dugu Emeterio Sorazu, hitz egiteko gogo eta umoretsu.

«Apaiz egiten ari naiz»

Getariako Askizu auzoan jaio zen 1937. urteko urtarrilaren 17an, Serorita baserrian. Apaiza noiztik den galdetuta, lehen ezustea, «ni apaiz egiten ari naiz, apaiza ez naizela esaten dut. 47 urte daramatzat apaizgintza lanean esaten ez zara behin ere iristen apaiz baina den helburu bikain potolo horretarako».

Ustez ulertu diot, bide bat egiten ari da Emeterio Sorazu, orain dela 47 urte hasi zuen bidea eta egunetik egunera helburura gertutzen ari da. «Herriari eliz elkarrekin bidez zerbitzatu eta lagundu, hori garbi eduki dut. 24 urterekin goztaia apaiz izate hori eman zigunean, lehenengo jomuga Berastegi izan nuen».

Berastegi 1961-1965

1961. urtean iritsi zen Berastegi Emeterio Sorazu, gazte zela beraz, «pentsa 24 urterekin gazte batek zer nahi duen, norbera disfrutatu, herriari ere disfrutatzen lagundu eta ikasi. Eta Berastegin zorte handia izan nuen; lau urte zoragarri egin nituen, orotzapean handiak

dauzkat». Hizkera xamurra du Sorazuk, oroitzapenen mundua gogoz deskribatzen du, iragana eta oraina batzen dituzten anekdotak kontatzeko gaitasun handia duela erakutsiz: «Gaixo etxera ekarri ninduten urtarrilaren 5ean, errege bezperan. Ohean hilabeteak egin nituen, derrigor, hezur barrua minbiziak janda nuen eta kaltzio beharra nuelako. Urtarrilaren 19ean etorri zitzaizkidan bost gizon, gelan sartzen ez ziren altuerakoak. Berastegin taldeetan landu nituen gazteak ziren. Gaur gizon eginda: 58, 59, 60 urtetakoak. Orduan gazte jendearekin lan ikaragarria egin genuela gogoratzen dut, baita herri lanean ere».

Herri lanak edo «herri zerbitzuak gaur beste modu batera ikusten dituzu» aipatu du ondoren. Horren esanahia zein ote den asmatu nahian ari naizen bitartean, hizketan jarraitzen du. Errespeta falta? Ulertu nahia. «Gobernadore Zibilak diru kopuru bat ematen zion Udalari konponketa lanetarako. Hura inauguratu ahal izateko, Gobernadorea bera etortzen zen. Gotzaiare beste eginkizun batzuetara etorri izan zen eta dena nik prestatu behar izaten nuen. Giralda egile, udaletxeko enplegatu, letreroak pintatzen, nire kamerarekin argazkiak ateratzen, ze elementu preparatu behar ziren jendeari esaten, dantzariak prestatu, modu askotara diskurtso txikitxoak bati eta besteari eman..., herri zerbitzuan oso lan polita ikasi nuen. Askok ikasi nuen bi apaizengandik eta herriagatik».



Emeterio Sorazu liburu artean, gustoko eginkizunean. INIGO TERRADILLOS

Pasai Antxo 1965-1981

«Pasai Antxo, Pasai Antxo da». Emeterio Sorazuren apaizgintza bigarren portua, jaioterria bezala Gipuzkoako kostaldean kokatua. 1.100 biztanleko herri txikitik, 11.000 biztanleko hirira. «Don Emeterio zinen lehen eta orain trolebusa bezala izango zara, horrenbeste ikusten dituzte, zu ere ikusiko zaituztela baina inork ez dizu ez agurrik ez atentziorik emango». Hau esan omen zion Getariako apaiz lagun batek destino berriaren aurrean.

Bizimodu berri baten aurrean aurkitu omen zen Sorazu, eta gauza batetaz jabetu zen: «prestakuntza handigoa behar nuelan». Baina ez zen bakarrik Pasai Antxon, amarekin bizitzeaz gain, «hiru apaiz lagun erretorea buru zela, zoragarriak izan nituen».

Ikasketek ere garai honetan eragin handia izan zuten Emeterio Sorazurengan, bere itsasuntzia gidatu baitzuten. «Lehen seminarioko ikasketak bakarrik nituen. Elektrizista titulua atera nuen orduan eta zalantzak izan nituen; Frantziatik korrante bat iritsi zen, apaiz

langileen korrantea. Apaiz izatea, apaiz langile bezala. Orduan elektrizista moduan lanean jarduteko aukerabari portuan, euskal ko-reografia eta dantzan ere prestatu nintzen, Juan Inazio Iztuetauren bilduma guztia irakurri nuen. Dantzaren bidean jarriaz, sinbolo espresiboak, jantziaren adierazgarritasuna, euskal ohiturak, euskal urteko jaialdi nagusi edo ekialdiak zer ikusia zuten, nola bildu, hanka mugitze eta arropa horietan hermingo 16-17 bizibide edo ogibideak... orduan sartu nintzen euskal kulturaren».

Irakasle dohainak agerian utzi zituzenez, bideko hurrengo urratsa agerian zegoen. «Zuk irakasletzarako gehiago balio duzula iruditzen zaigu, langile bezala baino, esan zidaten juntatik. Orduan bat utzi eta bestea hartu nuen eta ez dut damurik».

8 urte ondoren, aingura jaso eta itsasorik gabeko lurraldeetarako bidaiaren txanda iritsi zitzaion Emeterio Sorazuri. Ikasketak medio, Salamanca eta Madril ezagutzeko aukerak izan zituen. «Goztaineren eskabide bat atera zen

eta bertara gonbidatu gintuen». Esaldi bat, zehatza, eta bidearen hurrengo geltokira zuzentzeko nahikoa: «joan estudiantzera». Goztaineren hitzek, Espainiara zuzendu zuten Sorazu 36 urte zituela. «Hara joan eta ez Emeterio, ez Eme eta ez Sorazu, han 3.572 zenbakia nintzen. Zenbakiarekin deitzen zintuzten, gelara, notak hartzera, edo zer zuzenketa egitera eta abar».

Antzuola 1981-1986

«Antzuola (Gipuzkoa) oso garai kuriosoan izan zen, lehendabizikoz jarri nintzen apaiz bezala bakarrik». Ardura berriak hartzeko balio izan zion Sorazuri hirugarren destinoak. Eskualdeko kooperatibismo giroa ere ezaugarri berri bezala aztertzen du. «Antzuola, Bergaldea eta Arrasatealde guztia bezala, kooperatiba pentsaerak mugitzen duen herria da. Nik datu bat gogoratzen dut. Garai hartan Berastegitik ikastera mutil gazte batzuk eraman nituen. Hauek egunkaria irakurtzen zeuden Arrasateko plaza handi batean. Ze orri irakurtzen ari ziren ikusi nuen eta hauek eskelak, kirola, egunero ko pasadizo xebeak irakurtzen ari ziren bitartean, bertako jendea ekonomia, soziologia eta enpresa munguko orriekin aurkitzen zen».

Gizarte ezberdin baten aurrean, ikastea besterik ez zitzaion geratu Sorazuri, eta horrela hasi omen zen, «langile giroan ikasle handi bezala. Lantegi denak pasa nituen, orduerdi bat egitera joaten nintzen, mota askotako lanak ikusi eta etxera itzultzen nintzen. Datuak, argazkiak, galderak, erratzarekin leku batzuk garbitu...».

Bestalde, Antzuolan jarri zuen martxan gaur egun bizirik mantentzen duen proiektua, katekisis familiarra. «Hori izan da 32 urte hauetan egin dugun proiekturik onena eta gurasoen bitartez, guraso gazteen bitartez egin dugu. Antzuolaren txanda iritsi zitzaion Emeterio Sorazuri. 20 urte gazteagoak ziren hiru gazteekin. Bik familia ekarri zuten eta orduan familia mota berri bat estreinatuta

Sorazu, Barandiaran eta 14 elementuak

Salamancako Unibertsitatean, Teologian eta Erligio Pedagogian Liantziatzeaz gain, Emeterio Sorazuk Goi-mailako Psikologia eta Komunikabideetako Diplomatura ikasketak eginak ditu. Dokortze lortzeko berriz, Madrilen *Antropologia eta Erligioa Euskaldunen Herrian* lana idatzi zuen, Joxe Migel Barandiaran zuzendari bezala zuela.

Bada, ordea, bitxikeria bat Joxe Migel Barandiaranen harira. Emeterio Sorazu, aurrez aurreko inkestak egiten hasi zen Barandiaranekin gidatuta, Euskal Herriko 380 baserrietan. Baserrietara joan eta bertako hiru belaualdiei, hau da, aiton-amonei, aita-amei eta seme-

alabei, izadiarekiko, lurrarekiko, eguratsarekiko, hildakoekiko eta jaiotz-heriotza gertatzen deneko esperientzi horietan zenbaterainoko sentiberatasuna zuten galderetan zien: asko, gutxi edo batera ez.

Horrela zebilela... «Zarauzko (Gipuzkoa) baserri batean emakume bat atera zitzaidan ikuitulitik eskuetan egur ikatza, kandela, pilomena eta poxpolo kaja bat zituela. Normala den bezala, nondik zatotz? galdetu nion. Berak bazekien apaiza nintzela eta nik uste, esan behar zuena kalkulatu eta esan zidana. Oilaloka jartzetik nator. Zer ikusia ote daukate, oilalokak, arrautzak eta txitek eskuetan dituzun gauza horiekin pentsatu nuen nere

buruan. Zer egin duzu ba, galdetu nion orduan.

Berak xamur-xamur, gauzak normaltasunez egiten direnean bezala, zera esan zidan: bi dozentza arrautza hartu ditut. Otar batean jarri ditut. Etxe aurrean eguzkiak gehien jotzen duen zelaiko belarra, senarrak hilberriko egunean ebaki zuena, belarrondo bezala gainean jarri diot, seaska moduan. Arrautzak eskubiko eskua erekin, hirunaka puntaz gora hartu ditut eta jartzen joan naiz. Jarririk ditudanean, ezkerreko eskuan dudana egur ikatzarekin gurutze moduan punttetan ukitu ditut, eguzkiaren ibilera kontuan hartuta; ez fede edo kristauen gurutzea, eguzkia-

ren ibilera baizik. Gero kandela hau piztu dut. Jakingo duzu erleak direla, gure barne sentipen goitasunezkoak ondoan adierazten daiten animalitxoak eta haien jantziarekin eginda dago pilomena hau, beraz, sakratua da... baina apaizak bedeinkatua dago badaezpada ere. Piztu dut kandela eta ikatzarekin egin dudana bezala, argizari tantak bota dizkiet modu berean. Oilaloka hartu dut ondoren eta gainean jarri dut. Eta ziur nago hemendik 21 egunera, 24 arrautzetatik 24 txita etorriko direla».

Sekula ez omen zutenen zuntz horelako Sorazuk eta Joxe Migel Barandiaranenga joan zen gertatu azaltzera. Kontakizuna esate-

an... «On Manuel Lekuona eta nik ahalegin handiak egin ditugu gutxienez 60 bat urtetan Euskal Herriko herrietan. Resurreccion Maria Azkuek ohitura hori bilduta zeukan, baina guk aurrez aurre ez dugu ikusi. Hori oso aberatsa da. Kontakizun horretan, kondaira ezberdinetatik bildu diren elementu mitologikoak aurkitzen dira. Grekotarren mitoa, erromatarrenak, arabioak, euskal urteko bi ekialdikoak, afrikako lurraldeetako kultura askorekin bateratzen direna etab. aurkitzen dira». Denera, 14 elementu aurkitzen zirela erantzun zion Joxe Migel Barandiaran maisuak, Emeterio Sorazuri ikasleari.



11°
8°

GOIZA	EURIA
ARRATS.	EURIA
BEROENA	15°
HOTZENA	12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Ikuskizunak

- **Anoeta.** Eguberrietako egitarauaren baitan, magia ikuskizuna izango da udaletxeko areto nagusian, 17:00etan. 18:00etan, berriz, magia tailerra izango da.
- **Irura.** Trinketeko ekitaldi aretoan, 17:30ean, haur, gazte eta helduentzat Irurako haur eta gazte-txoe prestaturako antzezlan izango da ikusgai.
- **Villabona.** Javier Garayalde jazz Boskotea ariko da, Gurea antzokian, 22:30ean.

Kirola

- **Alegia.** Eguberrietako pilota topaketan finala jokatu du Elorri frontoian 16:00etan.

Deialdiak

- **Zizurkil.** Txuri Urdinera irteera urtarrilaren 12an Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoentzat. Izen-ematea Zizurkilgo udal bulegoetan.
- **Aiztondo.** Aiztondoko Zerbitzuen Mankomunitateak bi irteera antolatu ditu gaurko. Bata 2-5 urte bitartekoentzat Eguberri Parkera, eta bestea 6-12 urte artekoentzat Eguberri Parkera eta Txuri Urdinera. Izen-ematea, 943 693930 telefono zenbakian.
- **Tolosa.** Alpino Uzturre mendi elkarteak jakinarazi nahi du, astelehenetan eta asteazkenetan izango dela 2008 urteko mendi federatu txartela ateratzeko aukera. Horretarako, 19:30etik 21:00etarako tartean joan beharko da Alpino Uzturrekoen egoitzara.
- **Tolosa.** Gabonetako Merkatu Txikia zabalik dago goizez eta arratsalde, Kultur Etxean, Laskorain ikastolak antolatuta. Aurten biltzen duten dirua Sahararen eta Ekuadorren aldeko proiektuetara bideratuko dute.



Txan Magoaren magia eskualdean

IRURA • Txan Magoa eskualdean izan da azken eguntan. Herenegun Tolosako Leidor antzokian egon bazen, atzo Irurako Ikastolako ekitaldi aretoan izan zen magoa. Goraino beteta egon zen aretoa eta haurrak

zein helduak izan ziren bertan. Magiarekin askotan txunditu zituen adin guztietakoak. Txan Magoan hain ezagunak diren txiste eta ateraldiak ere ez ziren falta emanaldi batean zein bestean. I. GARCIA

■ **Tolosaldea.** Sahararen aldeko janari bilketa abian da eskualdean Sahara biz! Tolosaldea Sahararekin elkarrekin antolatuta. Arroza, azukrea, dilistik, hegaluzea eta konpresak eskatu dituzte aurten, saharar errefuxiatuen kanpamentuetara bidaltzeko. Tolosan, Maxi Eroski, Eroski Center eta BM supermerkatuetan utzi ahalgo da. Merkatu Txikiak zabalik dagoen artean han ere utzi ahalgo dira jaxkiak, eta eskualdeko udaletxe eta Kultur Etxe askotan ere bai.

Erakusketa

- **Tolosa.** Charo Berra Erroren *Zuhaitza: bizia eta kolorea* pintura erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian. 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehenetan izan ezik.
- **Tolosa.** Jabier Villarreal Armandarizen *Paralelo 42* argazki montajean erakusketa ikusgai dago, Aranburu Jauregian 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehenetan izan ezik.
- **Amezketako** Amezketako udaletxeko arkupeetan AHTri buruzko informazio panelak jarri dituzte, eta baita ibilbideari buruzko informazioa ere. Bihar arte egongo dira bertan ikusgai panelak. Amezketako Gazte Taldeak antolatutako ekimena da.

Zinema

- **Tolosa.** *Michael Clayton* filma, 22:30ean izango da ikusgai, Leidor aretoan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako Arbola, 3. Telefono zenbakia: 943 65 1040.
- **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. Telefono zenbakia: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Zorionak Ane!

Gure sugeak gaur 18 urte betetzen ditu. Kontuz, arriskutsua izan daiteke ta... area ertzean batez ere.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak